

68 CROSS ZORNOTZA INTERNACIONAL

2022 / 10 / 23

ARAUTEGIA

1. Lehiaketa **2022ko urriaren 23an** (igandea) izango da Amorebieta-Etxanoko Jauregibarriako zelaietan eta bertan Cross-Country delakoaren bederatzilafterketa egingo dira ondoko maila banaketari eta ordutegiari jarraituz:

ORDUA	MAILA	JAIOTZE URTEA	DISTANTZIA
9:40 h	Sub14 neska	2009 - 2010	1.550 m
	Sub16 neska	2007 - 2008	
9:50 h	Sub14 mutila	2009 - 2010	2.700 m
	Sub16 mutila	2007 - 2008	
10:10 h	Sub12 neska	2011 - 2012	1.120 m
10:20 h	Sub12 mutila	2011 - 2012	1.550 m
10:30 h	Emakumezko Sub18	2005 - 2006	3.120 m
	Emakumezko Sub20	2003 - 2004	
10:50 h	Gizonezko Sub18	2005 - 2006	4.700 m
	Gizonezko Sub20	2003 - 2004	
11:20 h	Gizonezko eta emakumezko paralinpikoa		1.970 m
12:15 h	Emakumezko absolutua	2002 eta aurrekoak	6.700 m
12:50 h	Gizonezko absolutua	2002 eta aurrekoak	8.700 m

2. Espainiako Atletismo Federazioak (RFEA) lehiaketa arautegian adierazitakoaren arabera honako baldintza hauek ezartzen dira maila bakoitzean parte hartu ahal izateko:

a) Sub12 eta Sub14 mailetan eskola kiroleko lizentzia duten Euskadiko atletak eta RFEAko lizentzia nazionala duten atletak parte hartu ahal izango dute.

b) Sub16, Sub18, Sub20 eta absolutu mailetan Espainiako Federazioko lizentzia nazionala duen edozein atletak parte hartu ahal izango du. Espainiako Federazioaren lizentzia nazionala edo Euskadiko Federazioko lizentzia autonomikoa duen Euskadiko edozein atletak ere parte hartu ahal izango du. Dena dela, maila hauetan bi sailkapen egingo direla adierazten da. Sailkapen ofizialean bakarrik agertuko dira Espainiako Federazioaren lizentzia nazionala

68 CROSS ZORNOTZA INTERNACIONAL

2022 / 10 / 23

dutenak. Beste sailkapen bat egingo da parte hartu duten atleta guztiekin eta sailkapen hau erabiliko da sari banaketa egiteko.

c) Maila paralinpikoko parte hartzaileak Kirol Egokituaren Federazioak adierazitakoak izango dira.

3. Sub16, Sub18, Sub20 eta maila absolutuko izen emateak Espainiako Atletismo Federazioaren **Extranet**-ean egingo dira eta Sub12 eta Sub14 mailetakook, aldiz, **cdzornotza.eus** webgunean **urriaren 19ko 24:00ak baino lehen** (lehiaketaren egunean ez dira inskripziorik onartuko). Izen emate guztietan datu hauek adierazi beharko dira: izena, bi abizen, jaiotze urtea, maila, klub edo ikastetxea, federazioa eta baimen zenbakia. Maila paralinpikoan Kirol Egokituaren Federazioaren ordezkariak egingo dute inskripzioa.

4. Dorsalak lehiaketaren egunean emango dira zirkuituko sarreran.

5. Dei ganbaratik pasatzea ezinbestekoa izango da atleta guztientzat ezagutzera emango diren ordutegietan.

6. Buelta galtzen duten atletek **derrigorrez** utzi beharko dute lasterketa.

7. Erreklamazioak lehenbailehen Epaille Nagusiari aurkeztu behar zaizkio, emaitzak publiko egin ondoren 30 (hogeita hamar) minutu pasa baino lehen.

8. Club Deportivo Zornotzak ez du erantzukizunik hartzen atletek lehiaketan zehar edo lehiaketaren ondorioz jasan dezaketen kalte fisiko edo moralei dagokienez.

9. Arautegi honetan ez aurreikusitakoa Antolatzaile Batzordeak erabakiko du RFEAko eta World Athletics-eko arautegiei jarraituz.

10. 68. Zornotzako Nazioarteko Krosean parte hartzeak arautegi honen onarpena suposatzen du.

Amorebieta-Etxanon, 2022ko irailean